

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Ohaintzen Gaineko Zergen Atala

334/2020 Foru Agindua, uztailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 13ko 661/2018 Foru Agindua, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazio ereduak onesten dituen eta eredu horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauak 76. artikuluan arautzen duenez, subjektu pasiboek zerga horren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu bidez zehazten den lekuan eta moduan.

Beste alde batetik, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arautegiak 36. artikuluan ezartzen du subjektu pasiboek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak berariaz onartutako ereduari aurkeztu behar dutela zergaren autolikidazioa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 13ko 661/2018 Foru Aginduaren bidez, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazio ereduak onetsi ziren, eta horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri ziren.

Foru Agindu horretan, aurkezpen presentzialaren prozedurari dagokionez, oro har eta nahitaez ezartzen zen autolikidazioak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programaren bidez egin behar direla. Salbuespen gisa, autolikidazioak paperezko inprimakian aurkezteko aukera eman zen, soilik pertsona fisikoak diren subjektu pasiboentzat eta eragiketa jakin batzuetarako.

Foru Agindu hau indarrean sartu zenetik igarotako denboran, egiaztatu da laguntza programak erabilera zabaldua duela, zergadunei autolikidazioa egiten laguntzeko tresna gisa, eta, beraz, bere betebeharrak formalak betetzeko. Horrek, aldi berean, zerga honetarako aurkeztu diren autolikidazioak azkarrago izapidetzea eta kudeatzea ahalbidetzen du.

Azaldutako arrazoiengatik, eta azaroaren 13ko 661/2018 Foru Aginduan jasotako salbuespena aldi baterako ezarri zenez, beharrezkotzat jotzen da foru agindu hori aldatzea eta bertan arautzen den guztia ezabatzea autolikidazioak paperean aurkezteari dagokionez.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalak honi buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu Bakarra – Aldatzea azaroaren 13ko 661/2018 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baitira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazio ereduak eta ezartzen baitira eredu horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura

Lehenengoa. Honela geratuko da idatzita 1. artikuluko – Ereduak onestae eta autolikidazioak egitea – Hiru puntua:

Hiru. Autolikidazioak egiteko, notarioen plataforma informatikoa edo Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programa erabili behar da.

Bigarrenena. Honela geratuko da idatzita 2. artikulua – Autolikidazioak aurkezteko moduak –:

Bat. Autolikidazioaren xede den egintza jasotzen duen dokumentua notarioarena denean, 600U, 600R, 600P, 600M eta 600S ereduak honela aurkez daitezke:

1. Aurkezpen telematikoa: notarioak egin dezake notarioen plataforma informatikoa erabiliz edo, bestela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak baimendutako profesional batek Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programaz baliatuz.

2. Bertaratuta edo aurkezpen presentzila: Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programaz baliatuz.

Apartatu honetan arautzen den egoeran, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kargapeko zerga egitateen agiriak bide telematikoa erabiliz edo paperean aurkeztu beharko dira, autolikidazioa aurkezteko erabili zen moduaren arabera.

Bi. Zerga ordaintzea eragiten duen egintza notarioaz bestelako dokumentu publiko batean, dokumentu pribatu batean edo Zergaren Arautegiaren 36.2 artikuluan aipatutako aitorpenean jasota dagoenean, 600U, 600R, 600P, 600M, 600S eta 630 ereduak autolikidazioak nahitaez modu presentzialean edo bertaratuta aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programa erabiliz.

Hirugarrena. Honela geratuko da idatzita 5. artikulua – 600U, 600R, 600P, 600M, 600S eta 630 ereduak bertaratuta aurkezteko prozedura–.

Bat. Hauxe da profesional ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazioen ereduak bertaratuta aurkezteko prozedura:

600U, 600R, 600P, 600M, 600S eta 630 autolikidazio ereduak betetzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako laguntza programa erabili behar da, nahitaez eta oro har.

Laguntza programaz baliatuz betetzen diren autolikidazio ereduak eta eskatutako dokumentazio osagarria dagokion zerga-zorra ordaindu ondoren aurkeztuko dira, hala badagokio, eta hori aurkeztu den unean egiaztatu beharko da; aurkezpena egitean zorra ordaindu dela frogatu beharko da.”

Foru Ogasunak jatorrizko dokumentazioa itzuliko dio aurkezleari, ordainketaren, salbuespenaren edo zergapetzerik ezaren eginbidearekin batera.

Laugarrena. Honela geratuko da idatzita 8. artikulua – Non aurkeztu – Hiru puntua:

Hiru. Gainerako autolikidazioak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren laguntza programaren bidez egiten direnak, Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoetan bertaratuz aurkeztu behar dira.

Bosgarrena. Honela geratuko da idatzita 10. artikulua -Autolikidazioa aurkeztu dela (eta, behar denean, zerga ordaindu dela) frogatzea. Erregistroa ixtea-:

Bat. Foru agindu honen bidez onesten diren autolikidazioak honela ordain daitezke:

1. Notario-plataforma korporatiboaren bidez ordaintzea.

2. Euskal Administrazioaren ordainketa pasabidearen sistemaren bidez ordaintzea, baimendutako profesionalak telematikoki aurkeztutako autolikidazioen kasuan.

3. Laguntza programaren bidez lortutako autolikidazioa finantza entitate laguntzaile batean bertaratuta ordaintzea.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta ondorioak izango ditu 2020ko irailaren 1etik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 8a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA